

KONPON DEZAGUN MODA!

EROSKETEZ KONTZIENTE
IZATEKO AHOLKUAK



ALDATU
ZURE ZAPATAK

Arropa Garbia
Kanpaina



Clean Clothes
Campaign

Setem

ZER DA ETIKETAK ESATEN EZ DIZUNA?

Modako markek ez digute argibide gehiegirik ematen zapatak egin diren lekuaren inguruan edo soinean daramatzagun jantziei buruz. Lantegietan zein etxean bertan, baldintza oso gogorretan, ekoiztu behar dituzten pertsonen errealitatea ezkutatzen ari dira.



Arropa Garbia Kanpainak industria globaleko arropa eta zapatak egiten ari diren langileen lan-baldintza egoki batzuen aldeko borrokan laguntzen du.

 ropalimpia.org  Facebook/CampañaRopaLimpia

 info@ropalimpia.org  Twitter @CRLSETEM

KONPON DEZAGUN MODA!

Agiri hau Europa Batasuneko diru laguntzarekin egin da. Edukien erantzukizuna SETEMena baino ez da.



EROSKETEZ KONTZIENTE IZATEKO AHOLKUAK



10_{zm}

ETXEZ ETXEKO
LANGILEAK



100 €

HIRIBIDE
KOMERTZIALAK

Indiako hegoaldean emakumeek etxez etxe zapaten palak josten egiten duten lan nekezaren orde, euroko 10zm baino gutxiago irabazten dute, eta zapata hauek hiribide komertzialetan 100 eurotik gora saltzen buka dezakete. Ez dute, ez lan-kontraturik, ezta langile modura eduki beharko lituzketen eskubide guztiak ere

ZEIN DA BENETAKO KOSTUA?

Astero agertzen dira kostu baxuko joera berriak dendetan. 'fast fashion' industriaren helburua da: zenbat eta gehiago erosi, hobeto.

Horrela, larunbat gau batean edo guk nahi dugun guztietan, oso sexi egon gaitezke! Primeran, ezta?

- Bada, ez.

Lucy Siegle kazetariak adierazten duen bezala:

“

Moda azkarra ez da doan. Baten bat, lekuren batean, ordaintzen ari da

”

Ez dugu nahi gure zapatak eta gure arropak beste pertsona batzuei minik sortzerik. Hala ere, badakigu marka handiek sekulako irabaziak izaten dituztela, eta, gainera, langileriak huskeria kobratzeaz gain, baldintza arriskutsuetan lan egiten duela.





1134
HILDAKO



2500
ZURITU

2013an Bangladesheko Rana Plaza lantegia eraitsi zenean, 1.134 lagun hil eta 2.500 zauritu izan ziren. Oraindik, beharrezkoa da lan handia egitea herrialdean dauden 5.000 arropa lantegietako jantzigintzan aritzen diren 4 milioi langileren ziurtasuna bermatzeko.

Moda azkarra eta merkea ez da arazo bakarra. Zapata edo praka batzuetako etiketan prezio altua egoteak ez du esan nahi etikoki egindakoak izan direnik. **Beraz, zer egin dezakezu zure arropa eta zapatak egin dituzten pertsonen tratu ona jaso dutela ziurtatzeko?**

GURPIL SORROA APUR EZAZU

Arropa asko daukazu eta ez dakizu zer jantzi?
Lagun askok aitortzen du inoiz jantzi gabeko
zapatak dituela, eta baita inoiz erabili gabeko
gauzak bota dituela ere!

Europar, urtero, **8 milioi
tona arropa botatzen da.**

Moda azkarraren kontza borrokatu daiteke!

- Zapata eta arropa gutxiago erosi
- Kalitatezko eta luzarorako diren gauzak aukeratu
- Bigarren eskuko produktuak erosi
- Marken jardunbideei buruz galdetu dendei

Mantsotu dezagun modaren erritmoa eta erakuts
diezaiegun markei bidezkoak diren arropa eta zapatak
nahi ditugula, eta ez arropa eta zapatak soilik.



MAITASUNEZ JANTZI

KONPONDU



Zulatutako jertse bat duzu? Hartu haria eta orratza. Zola bat askatu zaizu? Zapatentzako itsasgarri pixka batekin, dena konponduta. Ez zara trebea? Hurbilen duzun zapata konpontzailearengana jo.



HARROTASUNEZ BERRERABILI

Batzuetan, lagun berekin gelditzean, arropa ezberdina jantzi beharra sentitzen dugu. Jar itzazu harro zure jantzi gustukoenak!

BERRIMAJINATU



Zure kirolestako zapatila aspergarri horiei bizitza berri bat eman ahal dizkiezu kordoi edo kolore biziko begizta batzuk jarrita? Galtza laburregi horiek udako galtza labur bihur ditzakezu? Modu sortzailean pentsa ezazu!



TRUKATU


Azkenetako, zure betiko arropaz aspertuta bazaude edo ezberdinak izatea gustatuko balitzaizu, zergatik ez duzu trukerako egun bat antolatzen? Lagunekin geratu eta zuen jantziak partekatu. Zure arropak eta zapatak etxe berri bat aurki dezatela, eta besteren batek inoiz maite izan dituen altxor batzuen jabe egin!

HOBEKUNTZAK ESKATU


Aukeraketa kontziente bat egiten badugu, gauza asko alda ditzakegu. Baina, benetan, moda bada aldatu nahi duguna, egin dezakegun gauzarik garrantzitsuena industriak parte hartzea da.

Horniketa kate globala oso korapilatsua da. Marka bakoitzeko hornitzaileen lantegiak zeintzuk diren jakinez gero, marka horiei kontuak eskatzea daukagu. Langileek beraien eskubideak defendatzeko aukera izango dute, kalte-ordaina eskatzeko istripu bat gertatuz gero, eta segurtasunarekin edo soldatekin zerikusia duten gehiegikeriak jakinarazteko ere. Gardentasunak jakinaren gainean aukeratzeko lagunduko digu.

Arropa edo zapata berriak erosi behar dituzunean, zure langileen aldeko joera argi utzi, dauden tokian daudela.



Hurrengo arropa eta zapatak erostera zoazenean, galdetu dendako arduradunari: non eginda dago hau? Esan hornitzaileen zerrenda argitaratu behar duela enpresak, eta langileen eskubideak errespetatu behar direla. Postal hau sinatu eta entrega dezakezu.



ROPALIMPIA.ORG



ALDATU
ZURE ZAPATAK

Arropa Garbia
Kanpaina



Clean Clothes
Campaign

Setem



ALDATU
ZURE ZAPATAK

Arropa Garbia
Kanpaina



Clean Clothes
Campaign

Setem

Dendako arduradunarentzat,

Bezeroa naizenez, modaren industria globalean dauden lan-baldintzak asko arduratzen naute. Modu erraz batean jakin nahi dut non eginda dagoen erosiko ditudan arropa eta zapatak.

1. 100 pertsonatik gora hil ziren 2.013an Bangladeshen Rana Plaza lantegia eraitsi zenean. Baina etxeokoak kalte-ordainak eskatzeko aukera izan aurretik, hondakinen artean arropen etiketak bilatu behar izan zituzten, ez baitzen agerikoa egin lantegiarekin lotura zeukaten marken inguruko informazioa.

Arropa eta zapata marka batzuek argitaratu berri dute hornitzaileen zerrenda. Gardentasunarekin zerikusia duten betebeharrak onartzen dituzte, eta, beraien ustez, ezer ez dutela izkutatzeke erakusteak mesede handia egin diezaioke negozioari. Informazio hori agerikoa izatea langileen

eskubideen aldeko aurrerapauso ikaragarria da, beste tragediaren bat gertatuz gero, kontuak eman beharko direlako. Langileen eskubideak baliatzeko orduan ere lagungarria izango da.

Mesedez, harremanetan jarri bulego nagusiarekin eta nire eskaera igorri:

- **Argitara daitezela lantegi hornitzaile guztien kontaktuen datuak, helbideak eta izenak**
- **Erakuts dezatela arropa eta zapatak egiten dituzten pertsonen giza eskubideak errespetatzen dituztela, eta soldata duinak eta lan-baldintza zurrak bermatuta daudela**

Adeitasunez,

Informazio gehiago nahi izanez gero www.ropalimpia.org begiratu edo info@ropalimpia.org-era idatzi